

udaltop

## UDALTOP 2021

ZER ETA NOLA EGIN UDALETATIK  
EREMU SOZIOEKONOMIKOAN  
EUSKARAREN ERABILERA INDARTZEKO?

EREMU SOZIOEKONOMIKOAN  
EUSKARAREN ERABILERA INDARTZEKO,  
UDALETARAKO ZENBAIT GIDALERRO

[www.udaltop.eus](http://www.udaltop.eus)

ANTOLATZAILEAK





---

## UDALTOP 2021

ZER ETA NOLA EGIN UDALETATIK  
EREMU SOZIOEKONOMIKOAN  
EUSKARAREN ERABILERA INDARTZEKO?

**EREMU SOZIOEKONOMIKOAN  
EUSKARAREN ERABILERA INDARTZEKO,  
UDALETARAKO ZENBAIT GIDALERRO**

## AURKIBIDEA

0. Sarrera .....	5
1. Kanpo-kontratazioa .....	6
2. Eremu sozioekonomikoan eragiteko udal planak .....	10
3. Lan-ildoak garatzeko sortu diren hainbat proposamen .....	13



# 0

## SARRERA

**2021eko Udaltopen**, udaletako euskara zerbitzuek urtero egiten duten topaketan, **eremu sozioekonomikoan** euskararen erabilera indartzeko **udaletatik zer egin** daitekeen landu zuten; bi lan-ildo nagusi jorratu ziren:

- Toki Erakundeen Legearen eta 179/2019 Dekretuaren ondorioz udalek zer-nolako tresna juridikoak dituzten
- Eremu sozioekonomikoan eragiteko udal planak

Izan ere, Toki Erakundeen Legeak eta 179/2019 Dekretuak hizkuntza-politikaren eskumen eta obligazio zehatzak esleitzen dizkie udalei lehen aldiz; besteak beste, arlo sozioekonomikoan eragiteko eskumena.

Alor zabal horretan, baina, gidalerro hau egiterakoan, fokua bi alderditan jarri dugu: kanpo-kontratazioan eta arlo sozioekonomikoan normalizatzeko udal-planetan, hain zuzen ere.

Kanpo-kontratazioan jarri dugu fokua, **kontratazio publikoetan hizkuntza-klausulak txertatzea betebehar bat** delako eta horietan hizkuntza-baldintzen aplikazio egokiak, jauzi ikaragarria dakarrelako euskararen normalizazioan.

Eusko Jaurtaritzak, bestalde, onartua du, hainbat eragilerekin elkarlanean, **Euskara Eremu Sozioekonomikoan Sustatzeko Plana** (2020-2023). Eta plan hori gauzatzeko eragileetako bat, eta, garrantzitsua, udala da. Horrek eskatzen du, beraz, plan estrategiko horrek, nolabait, **udal-mailako planetan lur hartzea**. Kontratazio publikoaren gaia udalen barruko erabilera planekin estuki lotuta dago, eta eremu sozioekonomikoan eragitekoa, berriz, ESEP planarekin.

Bi lan-arlo horiek udaletan jorrotzen laguntzeko tresna gisa eta 2021eko Udaltop Jardunaldia oinarri hartuta, gida hau osatu dugu, betiere langintza hau duzuen teknikariei lan-metodo bat eskaini asmoz.



# 1 KANPO-KONTRATAZIOA

*Kontratazio publikoetan **hizkuntza-klausulak txertatzea ez da aukerakoa, nahitaezko baldintza da, eta kontratu guztietan txertatu behar dira.***



## 1.1. GAIAREN KOKAPEN LABURRA

Kanpo-kontratazioaren dimentsioa oso handia da administrazio publikoetan: 2019an, EAEko kontratazio publikoa Barne Produktu Gordinaren %21 ingurukoa izan zen.

Kontratazio publikoetako subjektu pribatuek prestazio publikoak garatzen dituzte, administrazioa ordeztzen dute, eta diru publikoarekin ordaintzen diren prestazio horiek hizkuntza batean edota bestean gauzatzen dira; alegia, **erakunde publikoek kontratatu publikoen edo kontratazio publikoaren bidez hizkuntza-politika garatzen dute**. Euskararen normalizazioa lortzeko ezer ez egitea ere bada Hizkuntza Politika egitea.

Estrategikoa da, beraz, kontratazio publikoaren gaia normalizatzea. Kontratazio publikoa tresna nagusietakoa da zenbait gizarte-politika sustatzeko. Izan ere, **9/2017 Sektore Publikoko Kontratu Legeak ere, 1.3 artikuluan, kontratazio publiko arduratsuaren** aldeko apustua egiten du.

Bestalde, 179/2019 Dekretuak (Euskadiko toki-entitateetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa arautzen duenak) hizkuntza-eskumenak gauatzeko tresna gisa konfiguratu du kontratugintza. Besteak beste, Dekretuak hau aipatzen du, 11.3.e) artikuluan: **toki administrazioek administrazio-kontratuak baliatu ditzakete dagozkien hizkuntza-eskumenak gauatzeko. 36. artikulua, aldiz, kontratu-mota guztietara**

**zabaltzen du hizkuntza-klausulak txertatu beharra:** hala nola, zerbitzu publiko, jarduera, ikerketa, proiektu eta antzeko lanak.

Gehiago sakontzeko: Iñigo Urrutia, *"Hizkuntza aldetik arduratsua den kontratazioa"*.

<https://www.udaltop.eus/eu/dokumentuak>

## 1.2. UDALA EREDU

Euskadiko Toki Entitateei buruzko 2/2016 Legeak, gainera, udalei euskara normalizatzen bide-erakusle eta aitzindari izateko eskumena eta erantzukizuna aitortzen dizkie.

## 1.3. UDALETAKO KONTRATAZIO PUBLIKOEN EGOERA HIZKUNTZA-KLAUSULEI DAGOKIENEZ

Kontratazioaren alorra normalizatzeko hainbat urrats egin diren arren, oraindik asko da egiteko dagoena, baina bi alderdi nabarmenduko ditugu:

- 1) **Udaletako sailek eta kontratazio-organismoek euskararen normalizazioa sustatzeko tresna gisa barneratu behar dute kontratazio publikoa.**  
Kontratazioaren gaia normalizatzeko elkarlanerako esparruak sortu behar dira, hizkuntza-zerbitzuen eta gainerako sail eta kontratazio-organismoen artean.  
Gainerako zehar-lerroekin (Genero berdintasuna, Ingurugiroa...) ere aliantzak landu behar dira.
- 2) **Hobeto zehaztu eta sistematizatu behar da euskara-zerbitzuek zer rol izan behar duten kontratazioaren esparruan, kontratazio-premia sortzen den unetik beretik eta kontratazioaren jarraipeneraino.**

Bestalde, kontratazio publikoaren bidez esparru sozioekonomikoan eragiteko hiru urrats nagusi egin behar dituzte udalek:

- 1) Hizkuntza-klausulen edukia berritzea
- 2) Hizkuntza-klausulak txertatzea
- 3) Hizkuntza-klausulen jarraipena egitea

## 1.4. HIZKUNTZA-KLAUSULEN EDUKIA BERRITZEKO GOMENDIOAK

- **Klausula tipoa berritu:** Komeni da kontratu tipologiari egokitutako klausula-tipoak berritzea, eta egokitzea Udal Legeak eta 179/2019 Dekretuak ezarritako irizpideetara.
- **Klausula-tipoak instrukzio batean jaso:** instrukzio hori zerbitzuburuei eta abarrei jakinarazi, zuzenean kontratazio-prozeduretan txertatu daitezten (udal bakoitzak erabakitako eran).<sup>1</sup>
- **Klausula-tipoak pertsonalizatu:** klausula-tipoak, beharren arabera, kontratazio bakoitzera egokitu.
- **Kontratuaren baitako zerbitzuaren edo produktuaren ezaugarria xehe aztertu:** erreparatu kontratuaren xedea edo zerbitzua garatzeko orduan izango diren egitekoei. Non dago hizkuntza beharra?
- **Hizkuntza-kontuak kontratuaren xedera eraman.** Ondo konfiguratu xedea, ondoren hizkuntza-klausula egokiak txertatzen eta horiek betearazten laguntzeko.
- **Hizkuntza-klausula zehatzak txertatu:** klausula orokorrak baino, hizkuntza-klausula zehatzak txertatu, kontratatik argi izan dezan zer eskatzen zaion eta udalari klausulen jarraipen-lana errazteko.
- **Zeharka ematen diren zerbitzu publikoetan udalaren hizkuntza-baldintza berberak bermatu:** pleguetan jaso baldintza horiek zeintzuk diren.

<sup>1</sup> (Instrukzioa ez da araua, eta ez da argitaratu behar. Barne-jarraibideak dira, arduradunek agindu ahal diete beren ardurapekoei nola jardun; administrazio barruko gidalerro modukoak dira. Horiek ez dira epaitegietan errekurritzen. Kontratu jakin bat errekurritzekotan interesdunek bakarrik izango lukete horretarako aukera, alegia, enpresek. Errekurtso horiek bideratuko dira kontratazio-errekurtsorako organo administratibo berezi batera, eta horien jurisprudentzia hizkuntza-klausulen aldekoa da).

- **Plegu teknikoetan hizkuntzari lotutako kaudimen teknikoa zehaztu:** Batetik, jaso zer nolako **gaitasuna** behar duen entitate jakin batek **hizkuntza-helburuak betetzeko**, eta kontratua behar bezala gauzatu ahal izateko (hizkuntza-gaitasuna, euskara-planetan eskarmentua...). Jaso, bestetik, **kontratua gauzatzeko** zer nolako **hizkuntza-baldintzak** ezarriko diren (herritarrak hautatutako hizkuntzan zerbitzua eskaintzea, esku-orri eta abarretan euskarazko ereduak eta eredu elebidunak sortzea, bilerak euskaraz egitea...).
- **Gaitasun teknikoak egiazatzeko bideak pleguetan zehaztu:** zehaztu eskatzen den gaitasuna erabiltzeko bideak.
- **Klausulen jarraipena nola egin pleguetan zehaztu:** jaso baldintza horien betetze-mailari jarraipena nola egingo dion Udalak.
- **Udalarekin harremana euskaraz izango dela pleguetan txertatu, bai eta entitateko solaskideak euskaraz jakin behar duela,** euskaraz lan egiten duten udaletan, edo euskarazko atal izendatutako udal-ataletan.

## 1.5. HIZKUNTZA-KLAUSULAK TXERTATZEKO GOMENDIOAK

- Kontratazio-prozeduran parte hartzen duten alderdi guztiei **barne-instrukzio bidez jakinarazi: kontratazio publiko guztietan hizkuntza-baldintzak txertatu behar dira,** legeak hala ezarrita.
- **Urteko kontratazio publikoaren aurreikuspena egin:** tokiko erakundeek beren kontratazio publikoaren kudeaketa programatu behar dute urtero. (Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak ezarrita).
- **Elkarlanerako esparruak eta bideak sistematizatu:** sailak, kontratazio-organoa eta euskara-zerbitzua (edo zeharkako zerbitzu guztiak) elkarlanean jarriko dituen.
- **Kontratazioan hizkuntza-kudeaketa egokia egiteko pedagogia-lana eta trebakuntza eskaini:** kontratazioan udal bakoitzean gako diren lanpostuak identifikatu (idazkariak, erosketa-arduraduna, zerbitzuburuak...), eta lehenasunez pertsona horiek trebatu eta ahaldundu.

- **Kontratuaren xedea definitzean hizkuntzaren aldagaia aintzat hartu:** urtero aurreikusten diren kontratuetan hizkuntzaren alderdia xedera ekartzeko aukera hasieratik aztertu.
- **Administrazio elektronikorako jauzia baliatu, hizkuntza-klausulak txertatzea bermatzeko:** elektronikoki kudeatzen diren kontratazio-espeditanteetan hizkuntza-klausulak ezartzeko izapidea edo urratsa txertatzea komeni da, eta izapide hori ezinbestean bete beharreko eremu izendatzea. Izapideen artean ere, hizkuntza-baldintzen jarraipena egitea txertatzea komeni da.
- **Hizkuntza-klausulak nork/nola txertatu zehaztu (eta prozedura elektronikoa urratsak edo izapideak horren arabera diseinatu):**
  - Administrazio bakoitzak aztertu eta finkatu ea zein den hizkuntza-klausula egokiak pleguetan txerta daitezten jarraitu beharreko prozedura (kontratazio-organoaren ardurapean utzi, euskara-zerbitzuaren txostena eskatu lanpostuen hizkuntza-eskakizuna definitu behar denean egiten den tankerara edo beste aukeraren bat...).
  - Prozeduran hizkuntza klausulen edukia proposatu izapidea iristen den unean, Euskara Zerbitzuak berak hizkuntza-klausulak txertatu.
  - ...
- **Kontratazio mota bakoitzerako hizkuntza-klausula tipoak zehaztuta izan:** oinarri gisa erabili ahal izateko, eta, kontratuaren xedearen arabera, egokitu ahal izateko.
- **Plegu administratiboetan hizkuntzarekin lotutako lege aipamenak txertatu.**
- **Baldintza teknikoan pleguan,** kontratuaren xedearekin lotuta eta kontratuaren ezaugarriak aintzat hartuta, dagozkien hizkuntza-baldintzak txertatu (hizkuntza-kaudimen teknikoa).
- **Kontratu Txikien** kasuan ez dago plegurik. Baina Kontratu txikietan, 5.000 eurotik beherakoetan izan ezik, espeditantea tramitatzeko kontratazio-organoaren txostena egiten duten hainbat udaletan, kontratuaren beharra arrazoitu (Sektore Publikoko Kontratazio Legearen 118.1 artikulua). Hala bada egokia izan daiteke:





- Txosten horretan ase beharreko hizkuntza-baldintzak aurreikusi, eta, ondoren formalizatuko den kontratuan, hizkuntza-baldintzak txertatu.
- Kontratu txiki asko izaten dira eta udal gehienetan sail bakoitzaren ardurapekoak. Hiru hilero erregistro publiko batean argitaratzen dira. Komeniko litzateke Euskara Zerbitzuek aztertzea, jarraipen-bideren bat zehaztea, (esaterako, udaleko aholkulari juridikoekin elkarlanean), klausula horiek txertatzen diren eta egokiak diren jakiteko eta beharrezko neurriak bideratzeko.

## 1.6. HIZKUNTZA-KLAUSULEN JARRAIPENA EGITEKO GOMENDIOAK

- Udalak hizkuntza-klausulei **jarraipena egiteko erabaki politikoa hartu** eta argi **adierazi** eragindako guztiei.
- **Pleguetan jaso** behar da hizkuntza **ez betetzeak zer ondorio** ekarriko litzuzkeen. Izan ere, jaso ezean, ezingo litzateke kontratua bertan behera utzi, nahiz eta hizkuntza-baldintza funtsezko alderdia izan.
- **Udalaren premiei erantzuteko urteko kontratazio-programazioa osatu:** hizkuntzaren alderditik esanguratsuenak diren kontratuak identifikatu, horien jarraipen estuagoa planifikatzeko eta gauzatzeko.
- **Sail bakoitzak barneratu bere saileko kontratazioari lotutako hizkuntza-helburuak.** Erabilera-planetan, sailez sail, helburu horri begirako estrategia eta ekintzak garatzea komeni da.
- **Zehaztu eta sustatu hizkuntza-klausulei jarraipena egiteko elkarlan bideak eta ardura partekatua:**<sup>2</sup> Kontratazioaren prozeduran garrantzitsua da elkarlanerako esparruak sortzea hizkuntza-zerbitzuen, eta sailen nahiz

kontratazio-organoen artean. Komeni da nolabait euskara-zerbitzuek osatzea eta ikuskatzea kontratu-arduradunaren edo kontratazio-organoen lana. Interesgarria izan daiteke euskara-zerbitzuek "kontrol-lan" edo ardura hori partekatzea, pleguen eta kontratazio-prozeduraren legezkotasuna aztertzen dutenekin (idazkariariak, lege-zerbitzuak...).

- **Kontratazio-prozeduraren edo espedientearen fase edo urrats bakoitzean hizkuntzaren alderdiari egin beharreko jarraipen-sistema zehaztu:**

Besteak beste, alderdi hauek zaindu beharko lirateke:

- Kontratuetak **pleguetan hizkuntza-klausulak** txertatu ote diren eta egokiak ote diren.
- Kontratu handia nahiz txikia izan, hizkuntzaren alderdia funtsezkoa den kontratuetan bereziki :
  - **Nork** edo zer entitatek **betetzen** dituen hizkuntzari lotutako **esleipen-irizpideak**. Gai al da entitatea kontratuaren hizkuntza-helburuak betetzeko?
  - Zer entitatek edo zer proposamenek betetzen ditu **kontratua exekutatzeko** hizkuntza-baldintza egokiak?
  - Kontratuaren esleipenduna izendatu ondoren, kontratua gauzatzean, betetzen al dira hizkuntza-baldintzak pleguetan ezarritako eran?

Aipatutako alderdi horiei jarraipena egiteko, eta, bereziki, hizkuntzaren ikuspegitik garrantzitsuak diren kontratazioetan, Udalak zehaztu eta bermatu egin behar du euskara-zerbitzuen parte-hartzea.



<sup>2</sup> Sektore Publikoko Kontratazioari buruzko 621 artikulua kontratu bakoitzeko arduradun bat izendatzeko betebeharra ezartzen du. Legeak indartu egiten du kontratuaren exekuzioa gainbegiratu duen administrazio-unitate bat izateko beharra. Unitate horrek bereziki egiaztatu behar du exekuzio-baldintza bereziak eta esleipen-hartzailearen eskaintza teknikoak betetzen direla.

## 2 EREMU SOZIOEKONOMIKOAN ERAGITEKO UDAL PLANAK

*Euskararen etorkizunaren ikuspegian kokatu beharra dago euskara eremu sozioekonomikoan sustatzeko erronka.*

### 2.1. GAIAREN KOKAPEN LABURRA

Eremu sozioekonomikoan dago, maila handian, euskararen biziberritzearen erronka nagusietakoa; bat datoz horretan aditu eta eragile gehienak. Gainera, gero eta tresna gehiago eta hobeak ditugu aro sozioekonomikoari eraginkortasun handiagoarekin heltzeko; langintza horretan laguntzeko, udaletatik arlo sozioekonomikoan udal planak egiten laguntzeko hainbat gidalerro jaso ditugu.


Gehiago sakontzeko:

<https://www.udaltop.eus/eu/dokumentuak>

- Miren Dobaran, "Euskara Eremu Sozioekonomikoan Sustatzeko Plana (2020-2023)"
- Juanjo Allur, "Eremu sozioekonomikoan eragiteko udal mailako plan prototipiko bat"
- Joxe Luix Agirretxe, "Eta udalak elkartzen direnean, nola eragin daiteke garapen agentzietatik?"

### 2.2. PLANA ABIATU AURRETIK KONTUAN HARTU BEHARREKO ZENBAIT ALDERDI:

- Udalerriko (ESEP) planaren ardatzean udalaren adar ekonomikoak egon behar du (ekonomia, merkataritza eta turismoa).



- **Euskara-zerbitzuak laguntzaile eta bidelagun** behar luke. Lagundu behar luke haien funtzioen barnean, poliki-poliki, hizkuntza-politikaren kudeaketa ere aintzat har dezaten.
- Udalerriko eta eskualdeko gainerako eragile eta entitateen solaskide nagusiek **solaskide naturalak behar lukete**; hau da, udaleko **adar ekonomikoko teknikari eta ordezkari politikoeak**.
- Aztertu arlo sozioekonomikoko plana **udalerrri- ala eskualde-mailan** diseinatzea eta garatzea komeni den.
- **Aliantzak lortu eta elkarlanerako guneak sortu** (edo daudenak baliatu) ekonomia adarreko udalerriko/eskualdeko eragile eta egiturekin.
- Instituzioen **arteko elkarlanerako guneak sustatu**, horietan parte hartzea garrantzitsua da, esaterako: dirulaguntza-politikak berraztertzeke, diskurtsoen lanketarako eta elkarren arteko osagarritasuna bilatzeko (udaleko adar ekonomikoak eta euskara-zerbitzuak batera).

### 2.3. UDAL BAKOITZAK BERE PLANA ARLO SOZIOEKONOMIKOAN ERAGITEKO

Udal bakoitzak bere errealitatera eta dituen baliabideetara egokituko du plana egiteko prozesua; izan daiteke, esaterako, 2 orduko bi saio eragile gutxi eta egokien partaidetzarekin; edo, izan daiteke, lauzpabost saioko prozesu bat.

Lanketa horretan gutxienez, udaleko ekonomia sailak hartu behar luke parte, euskara-zerbitzuaren laguntzarekin; eta, ahal balitz, udalerriko entitate eta eragileen partaidetzarekin. **Ekimena euskara-zerbitzuarena izan daiteke**, eta, gehienetan, halaxe izaten da, **baina ardura adar ekonomikoarena da. Euskara-zerbitzuak** bidelagun behar luke, eta horretarako **ondo ezagutu** beharko ditu **udaleko adar ekonomikoaren politikak, baliabideak eta egitasmoak**, horietan **hizkuntza-helburuak** eta irizpideak **txertatzen** laguntzeko.


Planaren diagnostikoa eta diseinua egiteko, bi ardatz aintzat hartzea proposatzen dizuegu:

- Arlo sozioekonomikoan eragiteko **ekosistema sortzea**.
- Politikaren inaktuaren mailaketa egitea; hau da, **zein sektore edota establezimenduetan** jarriko duen fokua.

### 2.4. ARLO SOZIOEKONOMIKOAN ERAGITEKO EKOSISTEMA SORTZEA

**Nork osatzen** du udalerriko arlo sozioekonomikoaren **ekosistema**? Zein dira eragile nagusiak? Nola dago osatuta? Zein dira haren **ezaugarri nagusiak**? Azterketa hori **lehenik** udal barruan egingo dugu, **udal barruan eraiki** behar baitira alor sozioekonomikoan euskararen alde **eragiteko baldintzak eta lidergoa**.

- **Udal barruko ekosistema**
  - Zein da udalak sustatzen duen politika ekonomikoa eta garatzen dituen egitasmoak?
  - Zer nolako hizkuntza-politika garatzen du udaleko ekonomia-sailak?  
Eta, nola kudeatzen du euskararen alorra ekonomia-sailak?  
Non daude erabilera handitzeko aukerak?
  - Nolakoa da, balego, udaleko adar ekonomikoaren eta euskara-zerbitzuen arteko elkarlana?  
Ze eginkizun betetzen du bakoitzak arlo sozioekonomikoaren normalizazioan?  
Zer paper jokutzen du bakoitzak arlo sozioekonomikoaren normalizazioan?
- **Udaletik kanporako ekosistema**
  - Zein dira udalerriko eta eskualdeko arlo sozioekonomikoa osatzen duten entitateak eta eragileak, eta horiek zer nolako funtzioa betetzen dute udalerrian eta eskualdean?
  - Zer programa, plangintza, estrategia garatzen dituzte edo konpartitzen dituzte?  
Ba al dute harremanik eta elkarlanik eragileek eta entitateek euren artean?
  - Zein da udalaren eta kanpo-eragile horien arteko harremana eta elkarlana?
  - Ba al da eskualde mailako estrategiarik?
  - Zer egin udalerrri mailan eta zer eskualde mailan?



## 2.5. LEHENTASUNEZ ERAGIN BEHARREKO SEKTORE ETA ESTABLEZIMENDUAK

Baliabide mugatuak ditugunez, lehentasunak ezarri ahal izateko komeni zaigu hainbat gai ondo ezagutzea; hala nola:

- Zein dira **udalerriko** edo **eskualdeko sektore, eragile eta entitateen ezaugarri nagusiak**? Zer sektore eta establezimenduk dituzte **baldintzarik egokienak** eraginkortasunez urratsak emateko? Zein sektorek edo entitatek du **eragin sozial handiena** udalerrian?
- Zer nolako **inpaktua** dute arlo sozioekonomikoko eragile/entitateek **udalerriri** edo **eskualde** mailako **bizitzan**: ikuspegi ekonomikotik, sozialetik eta **hizkuntzaren** ikuspegitik?
- **Euskarak zer leku** du eragile horien jardueran? Zer leku egiten diote euskarari alor sozioekonomikoa sustatzeko plangintza, programa eta abarrek?
- Euskararen normalizazioari begira, **aldeko zer baldintza** edo ezaugarri izan ditzakegu?
- Zer nolako **giza baliabideak** eta **baliabide materialak** daude udalerrian edo eskualdean arlo sozioekonomikoa hizkuntzaren ikuspegitik normalizatzeko?


## 2.6. OSATUTAKO MAPA HORI OINARRI HARTUTA, AURREIKUSI DEZAKEGU UDALEKO EKONOMIA-ETA EUSKARA-ZERBITZUAK ELKARLANEAN:

- **Ekonomia adarrak** hizkuntzaren **kudeaketa egokia bere egin** dezan, zein izan daitezkeen garatu beharreko **estrategia- eta ekintza-multzoa**.
- Udalak ekonomiaren alorrean garatzen dituen **politika eta egitasmoetan hizkuntza-helburuak nola txertatu**.
- Aurreikusi zer sektoretan, zer establezimendutan eta zer eragilerengan **eragin** nahi duten **lehentasunez**.

- **Identifikatu** barne- eta kanpo-**eragileak, programak** eta abar, eta **lehentasunezkotzat jotako** sektore eta establezimendu horiekin **harremanak** dituztenak.
- **Identifikatu** zer eragile ekonomikorekin sustatu aliantza eta elkarlana alor sozioekonomikoaren normalizazioan **bidelagun** izateko (baita euskalgintzakoak ere).

## 2.7. ARLO SOZIOEKONOMIKOAREN UDAL MAILAKO HIZKUNTZA-PLANA DISEINATZEA

- 1) **Lehentasunak non** eta zein normalizazio-estrategia jarraitu, **udal** edo **eskualde bakoitzak erabaki** behar du, duen errealitateak eta dituen aukerak aintzak hartuta.
- 2) **Beharrezkoena** eta aldi berean **eraginkorrena** denetik hastea komeni da, behintzat biek bat egiten dutenean.
- 3) **Plana dimentsionatu**: diagnostikoan edo mapa osatzean aurreikusi edo identifikatu ditugu euskararekiko behar handiena izan dezaketen sektoreak, entitateak (herriko bizitzan duten inpaktuari, betetzen duten funtzioari,...), edota, euskararen beharra ikus dezaketenak, eta baita euskararen erabilera sustatzeko baldintza egokienak izan ditzaketen lantegi eta establezimenduak ere. Baina zenbat dira? Noraino iritsi gaitzake? Aintzat hartu, helburuak ezarri eta gauzatzeko ditugun bitartekoak zein diren.
- 4) Lehenetsitako sektoreetako entitateen **informazio xeheagoa eskuratu**, jakiteko **zer diskurtsorekin gerturatu** eta **zertan eragin** dezaketen proposatzeko (euskararen ahozko eskaera aktibatzekeko estrategiak, zerbitzua euskaraz eskaini ahal izateko baliabideak, langileek euskaraz egiteko baldintzak sortzea, ...).
- 5) Plan horren **jarraipen eta ebaluaziorako sistema** zehaztu.



## 3 LAN-ILDOAK GARATZEKO SORTU DIREN HAINBAT PROPOSAMEN

*Udaltopeko jardunaldian jorratutako lan-ildoak garatzeko, proposamen zehatzak identifikatu zituzten talde-lanean. Laburbilduta atal honetan jaso ditugu:*

### 3.1. KANPO-KONTRATAZIOA

- Kontratazioari zentralitatea emateko udalez gaindiko estrategia bat garatzea, eta goitik beherako lidergo bat garatzea, Eusko Jaurlaritzak gidatuta.
- Herri Kontuen Euskal Epaitegiak udaletako kanpo-kontratazioaren alorrean hizkuntzaren ikuspegitik dagokion egitekoa aztertzea .
- Eusko Jaurlaritzak aztertzea udalaren kanpo-kontratazioaren prozeduran euskara-zerbitzuen egitekoa eta partaidetza arautzeko aukera.


Gehiago sakontzeko:

<https://www.udaltop.eus/eu/dokumentuak>

- Ander Bergara, "Kontratu publikoetan genero ikuspegia txertatzeko erakundeen arteko estrategia EAEn: euskararen erabileraren normalizaziorako ikasbideak bilatzen"


### 3.2. ARLO SOZIOEKONOMIKOAN ERAGITEKO UDAL-PLANAK

- Arlo sozioekonomikoko lege-garapena handitzea, arlo horretan euskara erabiltzeko beharra handitzeko.
- Hizkuntza-zerbitzuen egitekoak eta lan egiteko moduak aztertzea eta berregokitzea.
- Arlo sozioekonomikoan eragiteko goi-mailako lidergo politikoa garatzea, beste hainbat lidergo-kate eraikiko dituen.









udal**top**

[www.udaltop.eus](http://www.udaltop.eus)

ANTOLATZAILEAK

